

# ZTIMULab ekintzak

## Aldi baterako erakusketa ikastetxeetan: ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Astebetetz izango dira ikastetxean, denentzat ikusgai, zientzia eta teknologia alorrean etorkizunean izango diren 6 erronka garrantzitsuri buruzko panelak. Helburua da, ikasleei zientzia eta teknologiarekiko interesa pizteaz harago, aldaketa edo erronka hauei buruzko hausnarketa bultzatzea, dilema etiko zein moralak sortzen dituzten heinean

- Lanketa DBHko azken mailentzat gomendatzen da
- Zientziak gure bizitzan duen presentzia eta garrantziaz jabetzen lagunduko du, eta etorkizunean izango diren behar ugari ildo horretatik joango denaz ohartaraziko ditu gazteak

### Nola prestatzen da?

1. Panelak ikastetxera eramatean, aurkezpen bat egingo zaie ikasleei.
2. Erakusketa jartzen denetik denbora-tarte batera, klasean horri buruzko ariketa bat burutuko da.
3. Ariketa: Philips 66 metodoa erabiliz, eztabaida-saio bat egitea ikasgelan.
4. Eztabaida bideratzeko, irakasleak galdera-sorta bat aurkeztuko die ikasleei.



Aurkezpenerako gidoia guk emango dugu

### Eskaleta. Ikastetxean

Denbora	Inplementazioa
10 min	<b>Irakasleak:</b> panelak <b>ZTIMULab txokoan</b> kokatzean, aurkezpen txiki bat egingo du ikasleentzat, aldi baterako erakusketa zertan datzan azalduz
Aste 1	Erakusketa ikusgai egongo da guztientzat
7 min	<b>Irakasleak:</b> ikasleak taldeka banatu, egin beharrekoaren aurkezpena egin (galdera-sorta)
3 min	<b>Irakasleak:</b> rol banaketa
6 min	<b>Ikasleek:</b> taldekako eztabaida (6ko taldeetan, bakoitzak minutu bat)
20 min	<b>Ikasleek:</b> aldeko ordezkariak, taldekako ondorioak partekatuko dituzte (talde osoaren ondorioen partekatzea)

